



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko AZAROAREN 6an EGINDAKO OHIKO  
BILKURAREN AKTA**

2012ko azaroaren 6an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Aurreko bilkuretako akten onespena.  
2012ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Fakturak eta ordainketak.
4. Ainara Sarasola zinegotziaren kargu uztearen onespena, hala bada
5. Alkizako Intxaur-Haundi baserriaren teilatupeko etxebizitzari, lehen erabilera baimena ematea, hala bada.
6. C.S.L. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
7. 2013 urterako udal Ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala badagokio.
8. S. anai-arrebak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
9. Zumitzeta baserri ondoan herribideko luiziak kendu eta zati bat zabaltzeko obra baimena eskaera, J.M.
10. Beste batzuk.
11. Erregu, galdera eta mozioak.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**  
**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko irailaren 25eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

**BIGARREN PUNTUA**  
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

26/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, Faktura txikien zerrenda onestea eta ordainketa burutu dadila agintzea, guztira 735,20 euro direlarik, ebazten duena.

27/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 9koa, A.S. andreari Alkizako Astabio lursailetik pinuak ateratzeko, erabiliko duen herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

29/2012 Alkatetza Ebazpena, urriaren 31koa, Faktura txikien zerrenda onestea eta ordainketa burutu dadila agintzea, guztira 532,18 euro direlarik, ebazten duena.

**HIRUGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- IZFE	393,88€
- VULCO	520,00€
- VASCONGADA DE DROGAS	228,52€
- SASURLA	140,54€
- CORREOS	213,67€
- VODAFONE	379,04€
- TRANSPROTES ALBERTO ROTETA	943,80€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	181,50€
- IKER ECHARRI PORTABALES	726,00€
- URBIETA	163,80€
- MERKAOIL	1.023,66€
- IZADI	148,83€
- IZFE	1.670,47€
- GAS NATURAL FENOSA	491,77€
- GAS NATURAL FENOSA	591,43€
- GAS NATURAL FENOSA	150,24€
- GAS NATURAL FENOSA	265,79€
- GAS NATURAL FENOSA	135,97€
- GAS NATURAL FENOSA	124,34€
- GAS NATURAL FENOSA	121,94€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **8.615,19** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **AINARA SARASOLA ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Udaleko zinegotzia den Ainaara Sarasola Arsuaga andreak Alkizako Behin Behineko Idazkari Kontuhartzailea den Ane Gomez Urteaga andrearen aurrean 2012 urteko urriaren hemezortzian egindako agerraldia, akta jasoa egonik, zeinetan adierazten duen Alkizako udal ordezkari karguari uko egiten diola arrazoi pertsonalak direla eta.

Ikusirik Herri Erakundearen antolamendua, funtzionamendua eta eraentza juridikoa arautzen duen erregelamenduak, 2568/1986 Errege Dekretuak, 9.3 artikuluan xedatutakoaren arabera udal ordezkari batek kargua uzteko idatziz aurkeztu behar diola Udalbatzarrari.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Ainaara Sarasola Arsuaga andreak aurkeztu duen kargu uztea onartzea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Akordio honen berri “Junta Electoral Zentralari” ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **ALKIZAKO INTXAUR-HAUNDI BASERRIAREN TEILATUPEKO ETXEBIZITZARI, LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik E.S. jaunak Alkizako Intxaur-haundi baserriaren teilatupeko etxebizitzaren lehen erabilera baimena emateko eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, elektrizitate eta gas ziurtagiriak eta obra berriko eskritura aurkeztu dituela.

Ikusirik 2012ko urriaren 2an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

#### **“ALKIZAKO INTXAUR-HAUNDI BASERRIAREN TEILATUPEKO ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERAKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA**

E.S.U. jaunak bere etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2012ko irailailaren 25ean ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen oinarritzko eta eraikitze proiektuari, egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.”

Gaia azterturik, bertaratuak, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Alkizako Intxaur-Haundi baserriaren teilatupeko etxebizitzari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Erabaki honen berri E.S. jaunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **C.S.L. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik C.S.L. andreak eginiko eskaera, non dioen, barnetegi batean kurtso intentsibo bat egin behar duela hilabetez eta 311 eurotako kostu bat duela. Hori dela eta Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dio.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: C.S.L. andreak egin duen eskaera ukatu, Udalak ez duelako aurrekontuetan, aipaturiko diru-laguntzak emateko partidarik. Aurten ez direlarik diru-laguntzetako deialdirik onartu.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**2013 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik 2013 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, Ogasun eta Kontu Orokorren Batzorde Informatiboak egindako ondorengo proposamena:

- **ZERGAK**

- ***Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.***

Tarifak mantentzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara gelditzen da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,198a.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,198a.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,89a.

Hobariak mantentzea proposatzen da:

-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

-Obra berriko higiezinak edo urbanizazio prozesuan daudenak % 50.

- **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.**

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 1,65etik 1,68-ra igotzea proposatzen da.

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.**

1,54ko koefizientea aplikatzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. 1,54

A)Turismoak: Euroak

9 zaldi fiskal bitartekoak.....	27,76
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak.....	55,53
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak.....	102,17
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak.....	129,57
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak.....	166,60
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	203,61

B)Autobusak:

21 plaza bitartekoak .....	128,28
21 - 50 plaza bitartekoak.....	182,70
50 plazatik gorakoak .....	228,38

C)Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria.....	65,11
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	128,28
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.....	182,70



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

9.999 kg-tik gorako k.e.....228,38

D)Traktoreak:

16 zaldi fiskal bitartekoak.....27,21  
16 – 25 zaldi f. bitartekoak..... 42,76  
25 zaldi fiskaletik gorakoak.....128,28

E)Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria.....27,21  
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....42,76  
2.999 kg.tik gorako karga e.....128,28

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak..... 6,80  
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak..... 6,80  
Motozikletak 125 - 250 z.k. Bitartek..... 11,65  
Motozikletak 250 - 500 z.k. Bitartek..... 23,31  
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. Bitartek..... 46,64  
Motozikletak 1.000 cctik gora..... 93,29

**1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Ondorengo tarifak eta hobariak mantentzea proposatzen da.

- Nekazaritza-Abeltzaintzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetako kostuaren ..... % 2,5
- Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostuaren ..... % 2,5

Besteak: ..... % 5,00

HOBARIAK:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarria eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

### **1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

a)1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6

b)10 urte artekoa % 3,4

c)15 urte artekoa % 3,1

d)20 urte artekoa % 2,9

Karga tasa: % 5,91a igotzea proposatzen da.

## **2. TASAK**

### **2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza.**

#### **2.1.1. Ur horniketa.**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena ondorengoa da:





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- Etxeko erabilerako ur hornidura:
    - \* Gutxienerako 45 m<sup>3</sup> 10,91 euro.
    - \* Sei hilabeteko 45 m<sup>3</sup> gutxienerakotik aurrera: 0,336 euro.
  
  - Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura:
    - \* Gutxienerako 90 m<sup>3</sup> 28,50 euro.
    - \* Sei hilabeteko 90 m<sup>3</sup> gutxienerakotik aurrera: 0,408 euro.
  
  - Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:
    - \* M<sup>3</sup> bakoitza 0,76 euro.
  
  - Mantenimendu kuota 9,18 euro sei hilabeteko
  
  - Hondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa) Ur errezi boaren % 34,00a
- Hobariak: Ikus I. Eranskina

### **2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena ondorengoa da:

Etxez-etxeko bilketa, hileko.....15,30 euro  
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko..... 28,50 euro

HOBARIAK: Ikus I. Eranskina.

### **2.1.3. Dokumentu administratiboaren igorpena:**

Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

* Jarduera baimenak:	225 euro.
* Animalia arriskutsuen inskripzioa:	25 euro.
* Hirigintza kontsultak:	65,00 euro.
* Segregazio baimenak.	65,00 euro.
* Lehen erabilera baimenak	65,00 euro.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

#### **-ONDORENGO TASA BERRIAK ONESTEA:**

- \*Lur mugimendurako baimenak..... 0,20m3 bakoitza
- \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkidetza.....60€ urtean
- \*Don Juanena etxeko kirol gela erabiltzea.....2€eguneko

#### ***2.1.4.- Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera privatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatiko tasa.***

Tarifak mantentzea proposatu da.

#### ***2.1.5.- Hilerriko zerbitzuengatiko tasa.***

Ondorengo tasa igotzea proposatu da:

- Lurperatze tasa: 150,00 euro.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2012ko urriaren 30ean egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengoa,

#### **ERABAKITZEN DU**

LEHENA.- Ogasun eta Kontu Orokorretako Batzorde Informatiboaren proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berrien beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2012 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA.- 2012 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

**2013 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:**

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2013 urteko urtarrilaren 2tik 31arte.

Gizarte-ongizate sailak proposaturikoak: 2012ko ekainaren 1etik 30era

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2013 urteko maiatzaren 1etik uztailaren 1arte.

3.- URA TASA:

1. sei hilabetea: 2013 urteko iraila 2tik azaroaren 4a bitartean.
2. sei hilabetea: 2014 urteko otsailaren 3etik apirilaren 3a bitartean.

4.- ETA ZABORREN TASA:

1. sei hilabetea: 2013 urteko uztailaren 1etik irailaren 2a bitartean.
2. sei hilabetea: 2014 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 3a bitartean.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**S.ANAI-ARREBAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik S.anai-arrebak eginiko eskaera, non dioten, urriak 23an Alkatearekin eginiko bileran adierazi bezala, Astabiko herri bidea kamioientzat itxita dagoela eta berau irekitzea udalaren ardura denez, eskatzen dute 2012/27 Alkatetza ebazpena berraztertzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU**

LEHENA: S.anai-arrebei jakinaraztea, Astabiko gurdi bidea irekita dagoela, ondorioz, Udalbatza honek 2012/27 Alkatetza ebazpena berresten duela.

BIGARRENA: Interesatuei erabaki honen berri ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ZUMITZA BASERRI ONDOAN HERRIBIDEKO LUIZIAK KENDU ETA ZATI  
BAT ZABALTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.M.**

Ikusirik J.M. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Zumitza baserri ondoan herri-bideko luiziak kendu eta zati bat zabaltzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Alkizako Zumitza baserri ondoan dagoen herri-bideko luiziak kendu eta zati bat zabaltzeko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

***Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.***

**10.1. BERANDOAIN BASERRIAREN LURRETAN LUR  
MUGIMENDUAK EGITEKO OBRA BAIMEN ESKAERA, J.L.B.**

Ikusirik J.L.B. jaunak eginiko eskaera, non Berandoain baserriko lur-sailean lur mugimenduak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2012ko irailaren 23an Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

***“BERANDOAINEN LUR MUGIMENDUAK EGITEKO OBRA BAIMEN  
ESKAERA***

*2012ko irailaren 11an, J.L.B.I. jaunak, Alkizako nekazal lur eremuetan Berandoain baserriko lur-sailearen egokitzea egiteko beharrezkoak diren lur mugimenduak egiteko obra baimen eskaera egin zuen.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Nekazal lur eremua Partzelazioaren arabera 01 poligonoko 382 partzelan kokatua dago. Berandoain baserriko lur eremuetan kokatua eta hormigoizko zoladura duen bideak ahalbideratzen du irisgarritasuna. Topografikoki aztertzen ari garen partzelak malda esanguratsua du, bataz beste % 43 pendiza duelarik.*

2012ko irailaren 20an egin zen ikustatzean, ondorengo datuak hartu ziren.

*Eskaera orrian zehazten ez den eremuaren deskribapena egin zidan eskatzaileak. Neurri horien arabera, 1/1 taluda eraikiaz eta lehen 11,50tako distantzian 16,50m<sup>2</sup>ko betelana 1 metroko aurreikusiaz, 1000m<sup>3</sup> inguruko bete lan minimoa aurreikus daiteke.*

*Eskaera aztertu ondoren hau zehazten da:*

*Esan bezala bete lanak aurreikusten diren lur sailen malda esanguratsua da. % 43 maldarekin lehen 11,5 metroetan 5 metroko bete lan altuera duen horma etzana egitea eskatzen du. Hau horrela izanik eta gutxieneko 1/1 taluda eraikiaz 16,5m<sup>3</sup>/m kargaz beteko litzateke lur saila.*

*Kokagunea eta egin nahi den bete lana ikusirik behin behinean arrisku esanguratsua aurreikus dezaket bete lurren deslizamendu arriskua dela eta, batik bat eskaera orrian azaldurikoak ez bait du funts teknikorik. Horrelako bete lana egiteko bederen txosten tekniko batean oinarriturik egon beharko luke. Lurren euste sistema arazoituko duena, euri uren marruskadura geruza lurren deslizamendua ekiditeko harturiko neurri zuzentzaileak deskribatuko dituen eta hala nola bete lan bolumen eta eremu zehatza definituko lukeena.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- J.L.B. jaunak eginiko obra baimena eskaera ukatzea, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean, eskaturiko dokumentazioa Udaletxe honetan aurkeztu eta izapidetu arte.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri J.L.B. jaunari ematea.

**10.2. X.U.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik X.U. jaunak eginiko eskaera, non Garaikoetxea eta Zumitza baserrietako lur sailetatik pasatzen den Udaleko ur hornidura orokorreko hodi baten trazadoa aldatzeko baimena eskaera egiten duen. Trazadu berriarekin, pistaren azpialdean geldituko litzateke hodia, etorkizunari begira arazorik izan ez dadin.

Espedienteari planotxo bat eransten zaio gaur egungo trazadua eta obra egin ondoren trazadoa nola geldituko den adieraziz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Garaikoetxea eta Zumitza baserrietako lur sailetik pasatzen den Udaleko ur hornidura orokorreko hodiaren trazadoa aldatzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: X.U. jakinarazi lan hauek egiteko Udal langilearen laguntza izango duela.

HIRUGARRENA: X.U. jaunak egin behar dituen lanak, Udaletxeko ur hornidura orokorreko hodia aldatuz, Udalarentzat onura bat izango denez, dagokion Ordenantza fiskalen kitapena ez burutzea.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

### **10.3. ALKIZAKO ETXABE BASERRI ONDOAN DAGOEN ERAIKINAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMEN ESKAERA, J.M.I.**

Ikusirik J.M.I. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Etxabe baserri ondoan dagoen eraikinaren teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimen eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2012ko azaroaren 5ean Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

**“ALKIZAKO ETXABE BASERRI ONDOAN DAGOEN ERAIKINAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.M.I.S. jaunak, Etxabe baserriaren ondoan dagoen eraikinaren teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, gaur eguneko zeramikazko*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

teilak, gorri koloreko txapaz aldatu nahi dituelarik. Idatzi berdinean, aurreko eraikinak 8m luzatzeko bete behar dituen baldintzak galdetzen ditu. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako idatziaren arabera, eraikinaren teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila, gorri koloreko txapaz ordezkatzeari izango da. Ez da lan hauen aurrekonturik aurkezten.

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek eta handitze lanek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Etxabe baserria Alkizako lur ez hiritargarrin kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrian. Arau subsidiarioen arabera baserria eta inguruko eraikinek ez dute inolako katalogazio edo babes berezirik. Etxabe baserriaren ondoan dagoen eraikina kontsolidatua dago.

Eskarian bi aukera planteatzen dira:

- a. Eraikinaren teilatua gorri koloreko txapaz ordezkatzeari.
- b. 12mx10m-ko gaur egungo eraikina, 8m luzatzea (96m<sup>2</sup> handitzea)

Teilatuaren ordezkatzeari baimengarria izateko, lanen aurrekontua aurkeztu beharko da udaletxean, eraikuntzaren gaur egungo baldintzak mantentzen direlarik.

82/1998 dekretuaren arabera, eraikinaren handitzeak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen sailaren onspena beharko du. Honetarako eraikitze proiektua eta handitzearen beharra eta bideragarritasuna azaltzen duen memoria bat aurkeztu beharko da.

Handitze honi, abeltzaintzarako erabilera bat eman nahi zaiola ikusirik eta jarduera hau gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsua izanik, dagokion jarduera proiektua aurkeztu beharko da ere.

Eraikin berriak "Alkizako Hiri Antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren araudian" azaltzen den Nekazaritza eta abeltzaintzarako 3º kapituluak esaten duena bete beharko du.

\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira."



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.I. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Etxabe baserriaren ondoan dagoen eraikinaren teilatua gorri koloreko txapaz ordezkatzeko baimena ematea, baimen honek balioa izan dadin Alkizako Udaletxean lan horien aurrekontu bat aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENGOA: J.M.I. jaunak eginiko baimena eskaera ukatu, hau da, Etxabe baserriaren ondoan dagoen eraikina handitzeko baimena ukatzea, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak bete bitartean.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **SEIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.55 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*